



**UNTZI PHANTASMA GHOST SHIP BARCO FANTASMA**

Musika

**JOSERRA SENPERENA  
IGNACIO BILBAO**

Kamarak

**JAVIER AGIRRE ERAUSO  
KOLDO ALMANDOZ**

Ekolispina

**MARIAN FERNANDEZ**

Soinu diseinua

**LAURENT DUFRECHE  
HAIMAR OLASKOAGA**

Montajea

**LAURENT DUFRECHE**

Paperezko Antzerkia

**ITSASO AZKARATE  
KARLOS ODRIOZOLA**

Fx

**ANGEL ALDARONDO**

FLORENCE BALCOMBE

**MAIDER INTXAUSPE**

Gidoia eta Zuzendaritza

**KOLDO ALMANDOZ**



# AURKIBIDEA

01. SINOPSI LABURRA	3
02. SINOPSI LUZEA	3
03. ZUZENDARIAREN OHARRAK	4
04. FILMAREN IBILBIDEA	5
05. ZUZENDARIA	6
06. EKOIZPENA	7
07. ARGAZKIA	9
08. MUNTAKETA	10
09. JATORRIZKO MUSIKA	12
10. TXOTXONGILOAK	14
11. EKOIZPEN-ETXEA	15
12. FILMAREN FITXAK	16
13. ZUZENDARIAREKIN ELKARRIZKETA	17
14. HARREMANETARAKO DATUAK	19



## 01 . SINOPSI LABURRA

Kruzero batean itsasoratuko gara, untzi, hondoratze, zinema, fantasma, amodio eta banpiro istorio batean murgiltzeko.

## 02 . SINOPSI LUZEA

Ordubeteko gurutzaldia, saiakera metafilmikoa, mamu-filma. Bilaketa baten kontakizuna, aurkikuntzak ekarriko dituen, eta aurkikuntza horiek, aldi berean, beste bilaketa batzuk ekarriko dituzte.

Liburu, eskutitz, txosten, iragarki, telegrama, prentsa-artikulu, film-zati, paper-antzerki eta abarrez jositako narrazio-collagea.

Pasadizo, istorio eta pertsonaien kaleidoskopia. F.W. Murnau eta bere Nosferatu filma; Bram Stoker, bere emazte Florence Balcombe eta haren mutil-lagun Oscar Wildek osatutako maitasun-hirukotea. Hondoratze ospetsuak, oporrak itsasontzi batean. Erritu esoteriko baten bidez profanatutako hilobia, historiari eta zinemari buruzko hausnarketak...

Fikzioa, errealismo dokumentala eta bideo-saiakera ezkututzen dituen panpina errusiarren istorioa. Benetako eta fikziozko banpiroak dituen ispilu-jokoa; bakardadea, gizagabetzea eta gizarte-kontrola. Eta ororen erdian Drakula eleberria; bere protagonista, bere egitura, bere atze-oihala.




## 03. ZUZENDARIAREN OHARRAK

**Sipo Phantasma** mamu-filma da, nolabait. Filmatzen hasi nintzenean, ez nekien benetan zertan ari nintzen. Orri zuriko nabigazio-egunkari bat besterik ez zegoen. Zoriak hala nahi izanda, hainbat elementu nahasi ziren: bidaia bat eta gurutzaldi batean grabatutako irudiak, eta Bram Stokerren Drakula eleberria irakurtzea eta haren emazte Florence Balcombe aurkitzea. Ikertu ahala, hainbat istorio agertu ziren, eta halaxe hasi zen josten film hau, hari fin zein iradokitzaileekin.

Bram Stokerren *Drakularen* egitura imitatuz, **Sipo Phantasma** hainbat ahotsetan eta zeharkako narrazioetan oinarritzen da (egunerokoak, eskutitzak, artikuluak, berriak, liburu-zatiak, telegramak...) eta ikusleari uzten dio atalen artean igarotzen eta haien arteko loturak egiten: mamu-hiriak diruditen gurutzontziak ozeanoaren erdian; Florence Balcomben bizitza eta obsesioa; tindatutako zinema agertzea eta desagertzea; F.W Murnauren *Nosferatu*, *Drakula* liburuaren zinema-egokitzapena; jitoan dauden abandonatutako mamu-ontziak; odol-zirkulazioaren asmakuntza; hondoratze iragarleak, goleta errusiarrak...

Film hau istorioak eta irudiak eskuratzearen inguruan ere mintzo da. Gurutzontziak eta zinema garai berean asmatu ziren. Eta, funtsean, sortu zirenetik ez dira asko aldatu. Ikusi besterik ez dago nola orain 100 urte — korronte, estilo eta zinema-eskolarik ez zenean — bat egiten duten modu magikoan eta gogetagarrian filmatutako irudiak eta film honetarako grabatutakoak.

Zinema egitea, filmatzea, nolabait pertsonak, paisaiak eta objektuak mamu hilezkor bihurtzea da. Horrexegatik **Sipo Phantasma** zera aitortzea ere bada: gu, zinemagileok, inguruan ditugunen lanez, istorioez eta bizitzez elikatzen garen banpiroak garela.



## 04. FILMAREN IBILBIDEA

Gaur arte filma nazioarteko hainbat zinema-jaialditan eman dute, eta kritika onak jaso ditu:

- **Rotterdameko** 45. Nazioarteko Zinema Jaialdia (2016ko urtarrilak 27 - otsailak 7).
- Buenos Airesko 18. Nazioarteko Zinema Independentearen Jaialdia, **BAFICI** (2016ko apirilak 13-24).

Gurean, filma 2016ko irailean estreinatuko da 63. **Donostia Zinemaldian; Zabaltegi-Tabakalera** lehiazko sail berrian, hain zuzen ere.



## 05. ZUZENDARIA

### *KOLDO ALMANDOZ, Donostia, 1973*

Nafarroako Unibertsitatean Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziatu ostean, New Yorkera joan zen New Yorkeko Unibertsitatean zinema-ikasketak egitera. Bertan bere lehen film laburra zuzendu zuen, **Razielen itzulera** (1998), eta urte hartan bertan estreinatu zen Donostia Zinemaldiaren Zabaltegi sailean. Kolaborazioak egin ditu hainbat komunikabidetan: *Euskadi Irratia*, *Egunkaria*, *El País*, *Berria*, *Cuadernos del Caimán...* Zinemaren inguruko ikastaroak ematen ditu. Proiektu artistikoak koordinatzen eta zuzentzen ditu. Sail Ofizialeko hautaketa-batzordeko kide da Punto de Vista Nafarroako Zinema Dokumentaleko Nazioarteko Jaialdian. 2003tik zinema-zuzendari eta,aldi berean, *the balde* arte, kultura eta giza antropologiako aldizkariko zuzendari lanetan aritzen da.

### *FILMOGRAFIA (hautatua)*

- 2016 **Sîpo Phantasma** (Zuzendaria)
- 2014 **El último vuelo de Hubert Le Blon** (Zuzendaria)
- 2012 **Deus et machina** (Zuzendaria)
- 2011 **Trikuaren hiztegia** (Zuzendaria)
- 2009 **Ahate pasa** (Zuzendaria)
- 2008 **Aurrescue** (Zuzendaria)
- 2007 **Columba Palumbus (Uso Basatia)** (Zuzendaria)
- 2006 **Desio ehiztaria** (Zuzendaria)
- 2006 **Midori** (Zuzendaria)
- 2004 **Amuak** (Zuzendaria, gidoia)
- 2002 **Belarra** (zuzendaria, gidoia)
- 2001 **Mantis estroboscópica** (Zuzendaria)
- 2000 **A dar ba kar** (zuzendaria, gidoia)
- 1998 **Habana 3** (Zuzendaria)
- 1997 **Razielen itzulera** (Zuzendaria, argazkia, gidoia, aktorea)
- 1997 **Mon petit, mon amour** (Zuzendaria, argazkia, gidoia, aktorea)



## 06. EKOIZPENA

### *MARIAN FERNÁNDEZ, Iruñea, 1974*

Nafarroako Unibertsitatean Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziatu zen, eta Film Certificate ikasketak egin zituen ondoren New Yorkeko Unibertsitatean. 2008an Txintxua Films sortu zuen eta, harrezkeror, ekoizle da bertan. Punto de Vista eta Seminci zinema-jailadietan ekoizpen-koordinatzaile eta kopien zirkulazioen koordinatzaile lanetan ibili da.

2000 eta 2005 bitartean **SOGECINE** ekoizpen-taldeko kide izan zen eta aurrekoizpen, filmazio, ekoizpen-oste eta promozio arloetan lan egin zuen, besteak beste, honako proiektu hauetan: **Noche de Reyes** (Miguel Bardem, 2001), **Los otros** (Alejandro Amenábar, 2001), **La balsa de piedra** (George Sluizer, 2002), **Mortadelo y Filemón** (Javier Fesser, 2003), **Mar adentro** (Alejandro Amenábar, 2004).

**Cosmos** (Diego Fandos, 2007), **Un Lugar en el Cine** (Alberto Morais, 2006) eta **Casual Day** (Max Lemcke, 2006) filmetako ekoizpen-buru izan zen, eta **La sombra de nadie** (Pablo Malo, 2006) filmean lehenengo ekoizpen-laguntzaile ere bai. Ekoizpen-zuzendari lanetan hainbat bideo-dokumental egin ditu Morganentzat; esaterako, Donostia 2016 Europako Kultur Hiribururako hautagaitzarako aurkezpen-lana.

Plentziako Mikrofilm Short Festival, Donostia Zinemaldia eta Donostiako Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Asteko epaimahaikide izan da.

### *EKOIZLE JARDUNDAKO FILMAK*

#### **FILM LUZEAK**

**Amama** (Asier Altuna, 2015)

**Bertsolari** (Asier Altuna, 2011)

#### **FILM LABURRAK**

**Soroa** (Asier Altuna, 2014)

**Zela Trovke** (Asier Altuna, 2013)

**Hamaiketakoa** (Telmo Esnal, 2012)

**Artalde** (Asier Altuna, 2010)

**La Gran Carrera** (Kote Camacho, 2010)

**Amona Putz** (Telmo Esnal ESNAL, 2009)

**IZA; Refugio en el arte** (Asier Altuna, 2009)

**Setio\_Asedio** (Telmo Esnal, 2007)

**Taxi?** (Telmo Esnal, 2007)

#### **MARIAN FERNANDEZEK EKOITZITAKO ETA KOLDO ALMANDOZEK ZUZENDUTAKO FILM LABURRAK**

**El último vuelo de Hubert Le Blon** (2014)

**Deus et Machina** (2012)

**Ahate Pasa** (2009)

**Columba Palumbus** (2007)



*Midori* (2006)

*Amuak* (2004)

*Belarra* (2001)

*A dar ba kar* (1999)


*Habana 3* (1998)

*Mon Petite, mon amour* (1997)

*Razielen Itzulera* (1997)

Marianek eta Koldok **Pasaia 2005** dokumentalean eta EiTbren promozio-kanpaina batean ere kolaboratu zuten, biak 2005ekoak.





## 07. ARGAZKIA

*JAVIER AGIRRE, Irun, 1975*

Komunikazioen Elektronikako Teknikari, Irudi eta Soinu Teknikari eta Argazki Zuzendaritza ikasketak egin ostean, film luzeetan eta laburretan lan egiten hasi zen, baita publizitate-spotetan eta bideoklipetan ere. Txintxua Films etxeak ekoiztitako **Amama** (2014) filmeko argazki-zuzendaria da. Publizitatearen arloan, spotetan lan egin du, besteak beste, EITB, Caja Rural, Kutxabank, BBK, Trafikoa, Errenta eta Donostia Turismoarentzat.

Argazki Onenaren dozenaka sari jaso ditu zinema-jaialdi askotan: 2016ean Ceará Iberoamerikako Zinema Jaialdian **Amama** filmarekin; 2014an Budapesteko Nazioarteko Zinema Jaialdian eta Noussako 11. Nazioarteko Zinema Jaialdian (Grezian) **Cólera** film laburrarekin; 2010ean Olavarriako Nazioarteko Film Laburren Zinema Jaialdian (Argentina) **Asamara** obrarekin eta 2009an Torontoko Wildsoun Zinema Jaialdian **Autorretrato** lanarekin.

## ARGAZKI-ZUZENDARI JARDUNDAKO FILMAK

### FIKZIOZKO FILM LUZEAK

**Aundiya** (Aitor Arregi, Jon Garaño, 2016)  
**Amama** (Asier Altuna, 2015)  
**Acantilado** (Helena Taberna, 2015)  
**Loreak** (José María Goenaga, Jon Garaño, 2013)  
**Urte berri on, amona** (Telmo Esnal, 2011)  
**Bi Anai** (Imanol Rayo, 2011)  
**Cazador de Dragones** (Patxi Barko, 2009)  
**80 Egunean** (José María Goenaga, Jon Garaño, 2009)  
**Sukalde Kontuak** (Aizpea Goenaga, 2008)  
**Goazen** (Jabi Elortegi, Aitor Aranguren, 2008)  
**Cosmos** (Diego Fandos, 2007)  
**Eutsi** (Alberto Gorritiberea, 2006)  
**Skizo** (Jesús Ponce, 2005)  
**Aupa Etxebeste!** (Aiser Altuna, Telmo Esnal, 2004)  
**La pelota vasca** (Julio Medem, 2002)

### DOKUMENTALAK

**El Método Arrieta** (Jorge Gil Munárriz, 2012)  
**La casa del nazareno** (Jon Garaño, 2011)  
**Lucio** (Aitor Arregui, José María Goenaga, 2007)  
**Setioa** (2007)  
**Cámara negra** (Carlos Rodríguez, 2007)  
**The Dragon House** (Jon Garaño, 2003)  
**El maratón del Sáhara** (Aitor Arregi, Jon Garaño, 2003)  
**El secreto de Bhutan** (2002)



## 08. MUNTAKETA

### *LAURENT DUFRECHE, Hendaia, 1969*

Zinema eta telebista muntatzailea, publizitatearen arloan lan egiten hasi zen Channel Grafix ekoizpen-etxerako, eta, gutxira, Madrid Film zinematografia-laboretegiaren bideo-zuzendari izan zen. 2010 eta 2014 artean muntaketako irakasle izan zen Madrilgo ECAMen eta 2013an Hendaiaiko Zinema Jaialdiaren zuzendarikide.

Zinemaren arloan, film laburrak eta luzeak uztartu ditu, bai dokumentalaren alorrean, bai fikzioan; lehen-dabizi muntaketa-laguntzaile eta ondoren muntatzaile titular lanetan. Telebistaren munduan dokumental eta telesailetan muntatze zein errealizazio lanak txandakatu ditu.

Film luze honekin Dufrechek beste proiektu bat gehitu dio Txintxua Films ekoizpen-etxearekin duen harreman estuari: dagoeneko **Amama** (2015) film luzean eta **Soroa** (Asier Altuna, 2013), **Zela Trovke** (Asier Altuna, 2013) eta **Taxi?** (Telmo Esnal, 2007) film laburretan lan egin du. Oraingo honetan berriro ere Koldo Almandozekin lan egin du, **Hubert Le Blonen azken hegaldia** (2013) eta **Hamaiketakoa** (2012) ekoizpenetan kolaboratu ostean (biak Txintxua Films etxearenak).

### *MUNTATZAILE JARDUNDAKO FILMAK*

#### FILM LUZEAK ZINEMAN

**Aundiya** (Aitor Arregi, Jon Garaño, 2016)  
**Amama** (Asier Altuna, 2015)  
**La isla** (Ahmed Boulane, 2014)  
**Cinéma vérité, vérité** (Elena Manrique, 2013)  
**Bertsolari** (Asier Altuna, 2011)  
**Cinco metros cuadrados** (Max Lemcke, 2011)  
**Casual Day** (Max Lemcke, 2007)  
**El cielo gira** (Mercedes Álvarez, 2004)

### *MUNTAKETA-LAGUNTZAILE JARDUNDAKO FILMAK*

#### FILM LUZEAK ZINEMAN

**Loreak** (Jon Garaño, José Mari Goneaga, 2013)  
**Celda 211** (Daniel Monzón, 2009)  
**Diario de un skin** (Jacobo Rispa, 2005)  
**El 7º día** (Carlos Saura, 2004)  
**Salomé** (Carlos Saura, 2002)  
**Guerreros** (Daniel Calparsoro, 2002)  
**Buñuel y la mesa del rey Salomón** (Carlos Saura, 2001)  
**Los otros** (Alejandro Amenábar, 2001)  
**Asfalto** (Daniel Calparsoro, 2000)  
**Goya en Burdeos** (Carlos Saura, 1999)



**Goya en Burdeos** (Carlos Saura, 1999)

**Barrio** (Fernando León de Aranoa, 1998)

## MUNTATZAILE JARDUNDAKO FILMAK

### TELEBISTARAKO DOKUMENTALAK

**China en la maleta** (Pangea Films / TVE, 2012)

**Noshinto Shamporo** (Tita Portela, 2998)

**Hollywood Tequila** (Canal + España, 2006)

**Salir del armario a los 60** (Nais Producciones / TVE, 2006)

**Seres insólitos** (Com 4 HD, 1996)

## ERREALIZADORE JARDUNDAKO FILMAK

### TELEBISTARAKO DOKUMENTALAK

**Casals, Songs for Peace** (Nais Producciones / TVE, 2012)

**Documentos TV: 500 gramos de vida** (Nais Producciones / TVE, 2010)

**Hablando de sexo con adolescentes** (Nais Producciones / TVE, 2019)

### TELESAILAK

**21 días** (Boca Boca, 2009) MUNTATZAILEA

**Agitación + IVA** (Pausoka Productions / Telecinco, 2005) MUNTATZAILEA

**Hijos del corazón** (Filmax Televisión / TVE, 2006) EKOIZLEA

**La Crim** (Fit Productions, France 2, 1999-2000) MUNTATZAILEA



## 09. JATORRIZKO MUSIKA

### *JOSEERRA SENPERENA, Donostia, 1965*

Musikagile eta piano-jotzailea da, piano klasikoan eta jazzean prestatua. Pop-rock, zinema, antzerki eta literaturako proiektuetan kolaboratu du, musika-sortzaile gisa.

Gaur arte, zortzi diskografia-lan egin ditu.

Piano, kontrabaxu eta bateriaz osatutako hirukote-formatuan HIRU DISKO ditu:

**Joserra Senperena** (1999)

**Blues pasadizoak** (2002)

**Dardaren interpretazioa** (2008)

Chillida-Leku museoan Jose Ignazio Ansorena txistulariarekin grabatutako DISKO bat:

**Chillida-Lekutik** (2004).

Bi DISKO-LIBURU:

**Mandarin dotore** (2003)

**Cuentos para adultos** (2011)

Diego Vasallo, Rafael Berrio, Thomas Canet eta Suso Sáizekin grabatutako DISKO bat:

**Lieder** (2009)

Bi GANBERA-LAN:

**10 trio piano, biolin eta akordeoira** (2012)

**9 ganbera pieza** (2015)

**Joan** (2010) eta **50** (2014) eleberriak argitaratu ditu eta hainbat FILM LUZEREN SOINU-BANDEN egilea da:

**Pailazokeriak** (Imanol Zinkunegi, 2005)

**Simplemente** (Jon Andueza, 2009)

**Barriola, San Adriango azeria** (Juanba Berasategi, 2009)

**Toda la vida del mundo** (Nuria Ruíz Cabestany, 2010)

**Gure Sor Lekua** (Josu Martinez, 2014)

**Gure Sor Lekuaren bila** (Josu Martinez, 2015)

**Nur y el templo del dragón** (Juanba Berasategi, 2016)

*¡Abrcémonos Folleville!* (Orain, 1995), *Ama, quiero ser lehendakari* (Glu-glu, 2007) eta *Contra el viento del norte* (Tanttaka, 2011) **antzezlanen musika** ere egin du.

**21 Japonesas**, **Duncan Dhu** eta **La Buena Vida** banda mitikoetako kide izan zen, besteak beste.

**Amaia Montero** eta **Mikel Erentxun** artisten ekoizle izan da. **Fito y Fitipaldis**, **Quique González** eta **Coque Mallarekin** kolaboratu du eta, besteak beste, grabazio-estudioak partekatu ditu honako ekoizle hauekin: Rusty Anderson (Paul McCartney), Danny Thompson (Peter Gabriel, Paul Weller, Nick Drake), Joe Blaney (The Clash, Keith Richards), Clark Gayton (Bruce Springsteen)...



## *IGNACIO BILBAO, Donostia*

The Great Destroyers, Microcastles eta Rumano Power bandetako kide izan zen, eta **2013an Grande Days** martxan jarri zuen Lotus Plazarekin jo ondoren (gaur egun elkarrekin jotzen jarraitzen dute). Proiektu horren fruitua **Mänttäk** izan zen. Grande Dayseko kideek osatzen dute banda eta **Alvaro Sau** zinemagileak ere bertan parte hartzen du.

**2014an**, hamar urte igaro ostean, Iñigo Medinarekin berriro elkartu zen **Disco Estupendon** eta Jazpana Festen jo zuten, aurretik Grande Daysek jo zuen jaialdi berean.

**2015ean Las Chicas de Pasaik** taldearentzat hainbat kantu sortu zituen, **Hiztegi Poetikoaren** (2015) soinu-banda, hain zuzen ere. Handik gutxira Koldo Almandozek **Sipo Phantasmaren** soinu-bandaren zati bat konposatzea proposatu zion, eta **Yon Vidaurrek** eta biek grabatu zuten Muir Studiosen.

2016an Miguel Mariñorekin **FOMOS FICANDO SÓS** ikus-entzunezko performancea egin zuen Tabakaleran.

2016an **Grande Daysek** bere lehen estudio-lana argitaratu zuen: Spark. Bonberenea estudioetan grabatu zuen Karlos Osinagak (Lisabö), Pau Rodriguezen (Za!) kolaborazioarekin batera.

Gaur egun moda-marka ezagun baten promozio-bideoetarako konposizio batzuk sortzen ari da.



# 10. TXOTXONGILOAK

## *TEATRO DE PAPEL*

Itsaso Azkarate eta Karlos Odriozola txotxongilolariek Teatro de Papel taldea osatzen dute 1987tik. Aktore, zuzendari eta eraikitzaile izan dira antzerki bisualaren eremuan, bai eta txotxongilo eta objektuen antzerkiaren alorrean ere. Besteak beste, honako antzezte-ikuskitun hauek jarri dituzte martxan: **Terror bajo los hilos, Lam, Bi kate, Taun taun show, Makinatu, Ubu babel, Txio txioka, Kont arte, Galtzerdia, Te-a- u-ene** eta **Batuta**.

Ikus-entzunezko arloan ere egin dituzte proiektuak, esaterako **Auftin fx4**. Instalazio-espazioak gartu dituzte, hala nola **Kontuari kontu** eta **Laboa gertutik**, eta 1991z geroztik Bergaran Helduentzako Nazioarteko Txotxongiloen XI. Biurteko Jaialdiaren hamahiru edizio antolatu dituzte. Hainbat bira egin dituzte herrialde ugarietako jaialdietan, hala nola Herbehereetan, Italian, Alemanian, Frantzia, Indian, Brasilen, Kuban, Argentinan eta Venezuelan.

**Sipo Phantasman**, Itsasok eta Karlosek Florence Balcombe, Oscar Wilde eta Bram Stokerren arteko amodiozko triangela irudikatzen dute asmamen eta sentsibilitate handiz.



# 11. EKOIZPEN-ETXEA

## TXINTXUA FILMS

Marian Fernández ekoizleak eta Asier Altuna zuzendariak sortu zuten 2008an, eta honako film luze hauek ekoitzi ditu: **SÍPO PHANTASMA; AMAMA** (2015) Donostia Zinemaldian Euskal Zinemaren Irizar Saria jaso zuena; eta **BERTSOLARI** (2011), Donostia Zinemaldiko Sail Ofizialen aurkeztu zutena.

Nazioarteko zinema-jaialdietan ibilaldi luzea izan duten eta hainbat sari jaso dituzten dozena bat film labur ere ekoitzi ditu Txintxuak:

**Soroa** (Asier Altuna, 2014)

**Hubert Le Blonen azken hegaldia** (Koldo Almandoz, 2014)

**EZIN Neighbor** (Asier Altuna, 2014)

**Zela Trovke** (Asier Altuna, 2013)

**Hamaiketakoa** (Telmo Esnal, 2012)

**Deus et machina** (Koldo Almandoz, 2012)

**Artalde** (Asier Altuna, 2011)

**La Gran Carrera** (Kote Camacho, 2010)

**Amona Putz!** (Telmo Esnal, 2009)

**Taxi?** (Telmo Esnal, 2007)



# 12. FILMAREN FITXAK

## *FITXA ARTISTIKOA*

Florence Balcombe: **MAIDER INTXAUSPE**

Teatro de Papel: **ITSASO AZKARATE** eta **KARLOS ODRIUZOLA**

## *FITXA TEKNIKOA*

Zuzendaria eta gidioia: **KOLDO ALMANDOZ**

Ekoizpena: **MARIAN FERNANDEZ**

Kamerak: **JAVIER AGIRRE ERAUSO / KOLDO ALMANDOZ**

Muntaketa: **LAURENT DUFRECHE**

Soinu-diseinua: **LAURENT DUFRECHE / HAIMAR OLASKOAGA**

Efektuak: **ANGEL ALDARONDO**

## *DATU TEKNIKOAK*

67 min / Kolorea / GAZTELANIAZKO B. / DCP / 1:1,85 / STEREO





# 13. ELKARRIZKETA ZUZENDARIAREKIN

## **Zerk erakarri zintuen hasiera batean gurutzaldien unibertsoetik film bat eratzeko?**

Ur gaineko hiriak diruditen gurutzontzi horiek beti iruditu zaizkit deigarriak. Jendeak bere aisialdia jendez inguratuta, espazio hain murriztuan eta «ihes egiteko» aukerarik gabe egon nahi izateak jakin-min handia eragiten dit. Hala ere, David Fosterren A Supposedly Fun Thing I'll Never Do Again irakurtzeak bultzatu ninduen gurutzaldi batean itsas bidaia egitera.

## **Hasiera batean, proiektuak behaketa-dokumentala izan behar zuen. Nola eboluzionatu zuen saiakera metazinematografiko izatera iritsi arte?**

Ez zegoen aurretik pentsatuta, zoria eta senaren fruitu izan zen. Gurutzaldian geundela, konturatu ginen gauz ez zela ontziginera igotzen nabigazioaz gozatzeko. Espazio ireki, huts eta argiteria arraroa dutenek liluratu egiten naute... eta «mamu-ontziaren» ideia bururatu zitzaidan. Hortik aurrera, nirekin bidaiatzen ari zen Mainer Intxausperi kameraren aurrean jartzeko eskatu nion. Eta horrelaxe, gidoirik gabe, banpiroaren ideia sortu zen, barkuan betiko nora ezean dabilen espektroarena.

Eta, gurutzaldia amaitu zenean, Bram Stokerren Drakula berriro irakurri nuen. Liburu horren hitzaurretik Bram Stokerren emaztearen pertsonaia sortu zen, Florence Balcombe, baita hark Murnauren Nosferatu-rekin izandako harremana ere. Ontziginan filmatu nuen banpiro bakartia bera zela ulertu nuen.

## **Nola aurkitu zenuen narrazio-egitura hain berezia, hau da, baliabide hain heterogeneoetan oinarritutakoa?**

Florence Balcomben inguruan interesa piztu zitzaidan, baina ia ez nuen hari buruzko informaziorik aurkitu. Grabatu ahala eta nire ikerketan aurkitzen nituen elementu berriak eta interesgarriak agertu ahala eraikitzen zihoan filma. Aurkikuntza batek beste batera eramaten ninduen, hots, nola filmatu edo filmean nola irudikatu pentsatzera. Orekari bat bazina bezala sentitzen zara, beti hari-harian, baina ematen duzun urrats bakoitza indarrez bizi duzu. Prozesu atsegina eta liluragarria izan da.

Buelta asko eman nizkion narrazioaren moduari. Hainbat formula eta muntaketa probatu nituen, konturatu arte egitura hasiera-hasieratik bertan zegoela: Stokerren eleberraren egitura eta narrazioa.

## **Filmak gai zeharo ezberdinak lotzen ditu, hala nola bakardadea, gizartea gizagabetu izana, kontrol soziala, sormen-banpirismoa, historia eta zinema... Zuk bilatutako gaiak dira, ala haiek aurkitu zintuzten zu?**

Gauza batzuk bilatu egin ditut, besteak agertu egin dira... Zoria eta sena garrantzitsuak izan dira, baina horiek funtzionatzeko mugimendua, aldez aurretiko jarrera eta lana behar dira. Zoria, talentua eta jentotasuna badirela uste dut, baina, niri behintzat, lanean harrapatu behar naute.

## **Filmean testuen gaininpresioa erabiltzen duzu, offeko ahotsaren edo elkarrizketen kalterako. Erabaki horrek zenbateraino eragiten die beste baliabideei, esaterako giro-soinuari eta musikari?**

Drakulak zera egiten asmatu zuen, istorioa kontatzeko hainbat ahots erabiltzen: egunerokoak, esku-titzak, grabazioak, berriak... Era askotako eta zeharkako narrazio hori film honetarako ere bikaina zen. Bilatzen nituen tartea eta neutraltasuna ematen zizkion, offeko narrazioak inoiz eman ezin dizkion elementuak, hain zuzen ere. Ikusleari uzten diot puzzleko pieza horiek ipintzeko ardura.

## **Nola planteatu duzu soinu-banda?**

Estilo oso desberdineko bi musikarirekin lan egin dut. Joserra Senperenak prestakuntza klasikoa du. Filma muntatzen nuen bitartean bere ganbera-piezak entzuten hasi nintzen, eta konturatu nintzen ezin nuela filma ikusi bere musikarik gabe. Ignacio Bilbao zuzeneko errezital batean entzun nuen eta asko



gustatu zitzaidan. Zorionez, biek onartu zuten soinu-banda egitea eta, bi musika-estilo desberdin izan arren, filmean bat datoz.

### **Nola landu duzu Mainerren interpretazioa?**

Dena bat-batean sortu zen eta bere rola filmatu ahala eraikitzen joan zen. Mainer ez da aktorea. Tokatu egin zen han. Ez nuen espero ontzian grabatzen hasitakoa azkenean film bihurtuko zenik. Aurreikusi gabe, Mainerrek fisiko eta egote erabakigarriak ditu filma azkenean den bezalakoa izateko.

### **Nola sortu zen Teatro de Papelekin lan egiteko ideia eta nola barneratu zenuten txotxongilolarien lana filmean?**

Florence, Stoker eta Wilderen triangelu-istorioa aurkitu nuenean, hura nola irudikatu pentsatzen hasi nintzen. Bram Stoker Londongo antzoki baten zuzendari izan zen urte askoan, eta istorioa antzezlan baten bidez kontatzea pentsatu nuen. Baina, ustekabean, viktoriar garaian oso ohikoak ziren kartoizko edo egurrezko antzerki horietaz gogoratu nintzen, jostailu tankera dutenak. Nolabait, zinemaren aurretiko paper-antzerkiaren elementua gustatu zitzaidan... Meilésen estiloaren antzekoa da.

### **Hain ekoizpen esperimentalak izanik, nolakoa izan da Txintxua Films ekoizpen-etxearen babesak eta ohiko kolaboratzaileak izatea, esaterako Marian, Dufreche, Agirre...?**

Eroso sentitzen naiz. Gustuko dut zer egiten duten eta nola egiten duten. Haien lanak nirea hobetzen du. Jende berriarekin lan egitea ere gustuko dut, baina, nire lanen izaeragatik, lotsa ematen dit. Beraiekin ez dut neure burua zuritzen ibili beharrik, babestuta sentitzen naiz.

Orain dela 20 urte hasi nintzen Marian Fernándezekin filmak egiten. Horregatik, niretzat Txintxua ez da babes hutsa. Film bakoitzaren parte da. Badakit teorian ez dela erraza nire lanen alde apustu egitea. Eta Txintxuak hala egiten du; erabateko askatasuna dut lan egiteko. Marian bera da ideia bat kontatzen diodan lehenengo pertsona. Eta gidoitik filmaren amaiera arte alde aktiboa izaten du. Txintxua zinema-gileek sortutako ekoizpen-etxea da, zinema egiteko sortua: hori da alde handiena.



# 14. HARREMANETARAKO DATUAK

## *EKOIZPEN-ETXEA*

TXINTXUA FILMS

Euskadi Etorbidea N53, 4ºA, 20110, Trintxerpe-Pasaia-GIPUZKOA

[www.txintxua.com](http://www.txintxua.com)

[txintxua@txintxua.com](mailto:txintxua@txintxua.com)

+34 943 39 33 80 / +34 659 493 647

## *PRENTSA ETA KOMUNIKAZIOA*

Andrés García de la Riva

[prensa@txintxua.com](mailto:prensa@txintxua.com)

+34 672 376 162

## *FILMAREN MATERIALAK DESKARGATZEKO*

<http://www.txintxua.com/film/sipo-phantasma-untzi-fantasma/press/>